



XXIV

**Zinemakumeak
G A R A !**

Emakumeek
zuzenduriko
zinema-erakusketa

**URRIAK 14/21
SALABBK BILBAO**

@zinemakumeakgara
 @ZinemakumeakG
www.zinemakumeak.com

ANTOLATZAILERA

BABESLEAK

LAGUNTZAILAK

KOMUNIKABIDE LAGUNTZAILAK



ZINEMAKUMEAK GARA! 2019

Filosofoa eta idazlea den Maite Larrauriren laguntzarekin, feminismoaren uneko egoeraren argazkia egin nahi dugu, "Zinemakumeak gara!" jaialdiko XXIV. ediziorako hautatutako pelikulen testu eta azpittestuetan islatzen den prozesu iraultzailearen subjektu gisa duen berebiziko garrantzia aztertzearekin batera.

"Aldaketaren zurrumurrua" izenburupean multzokatutako zortzi film luze ikusteko aukera izango dugu eta, hauen inguruan, feminismoaren laugarren olatuak oraindik ere estamentu erreakzionarioenei aurre egin behar dien ekoizpen kulturean izandako inpaktua eztabaidatu dugu. Ahalegin horretan bidaide izango ditugu Clara Serra, Aixa de la Cruz, María Mur, eta hiru emakume produktore eta moderatzaile lanetan arituko da CIMA elkarteko presidenteordea den Virginia Yagüe. Haien guztien talaia pribilegiatutik aztertu ahalko dugu emakumeek ikus-entzunekoen munduan gaur egun bizi duten benetako egoera. Nahikari Ipiñak, María del Puy Alvaradok eta Marta Velascok osatutako mahai ingurua izango da *Simone Beauvoir* Sariaren edizio berriaren atariko saioa, aurten Puy Oria zinema produktorearen ibilbide oparoa gorai patuko duena. Hainbat jarduera gehiago ere izango ditugu; gure artean egongo da Ana Díez zuzendari eta gidoi-laria, EZEZAGUNAK ataleko gonbidatu nagusi gisa, bere "Elvira Luz Cruz, pena máxima" dokumentala aurkeztera etorriko dena, aurten NOKA programan parte hartu duten Itziar Leemans, Estibaliz Urresola eta Tamara Lucarini film laburren zuzendarien lanen erakusketari sostengua emateaz gain. NOKA programak Euskadin lan egiten duten emakume zinemagileei (zuzendari eta/edo produktore) laguntza pertsonalizatua eskaintzen die film luze zinematografikoak gara ditzaten. Programa ixteko "La camarista" filma proiektatuko da eta Isabel Otxoak, Itziar Gandariasek eta Susasna Carramiñanak mahai ingurua burutuko dute gizarte postindustrialean langile mugimenduaren giltzarri gisa feminismoak duen garrantzia eztabaidatzeko. Bestalde, programaren barruan eskainiko dira ere UPV/EHU-ko irakaslea den Aintzane Rincónen "Begirada kritikoa garatzen hasteko lantegia" eta XPREST! AUX film laburren jaialdiaren VIII. edizioa.

Antolatzailea: Zinemakumeak Gara! Elkarte

Programazioa: Josu Eguren, Ana Gutiérrez

Koordinazio orokorra: Ana Gutiérrez

Ekoizpena: Josu Eguren, Amparo Moreno

Diseinu grafiko: Txakur Gorria

Showreel diseinua: Curruscu

Maketazioa eta inprimatzea: Binari Comunicación

Proiektzioak: Sala BBK, Azkuna Zentroa, Campos Antzokia eta Bilborock

Prentsa eta komunikazioa: Maider Iparraguirre

Sarrerak salgai **SALA BBK-n, BBK-ko orotariko kutzazainetan, www.bbk.es** eta **944 310 310** telefonoan.

19:30

ZINEMAKUMEAK GARA! XXIV. EDIZIOAREN INAUGURAZIO EKITALDIA - EMAKUMEZKOEK ZUZENDUTAKO ZINEMAREN LAGINA

Laginaren inaugurazio ekitaldia eta Patricia Sornosaren ikuskizuna:

Patricia Sornosa umorista, aktorea, antzerki zuzendaria eta antzerkigilea. Haren umorea oldarkorra eta feminista da.



20:00

LAS NIÑAS BIEN

Alejandra Márquez Abella. Mexiko. 2018. 93 min.

Gidoia: Alejandra Márquez Abella, Monika Revilla (Liburua: Guadalupe Loaeza)

Aktoreak: Ilse Salas, Flavio Medina, Cassandra Ciangherotti, Paulina Gaitan, Johanna Murillo, Jimena Guerra, Anajosé Aldrete Echevarria, Pablo Chemor, Claudia Lobo, Diego Jáuregui, Daniel Haddad, Rebecca de Alba.

Luxuzko etxeen, Grand Marquis autoen eta Julio Iglesiasen, Yuriren eta Menudoren musika artean, Sofia eta emakume talde bat klasismoaren gorabeheren eta krisi ekonomikoen mendean bizi dira.



19:30

MAHAI INGURUA: "ALDAKETAREN ZURRUMURUA"

Clara Serra Sánchez Filosofian lizentziatua da, eta idazlea.

Aixa de la Cruz (Bilbo, 1988) Idazlea. Filologia Ingelesean lizentziatua da, eta doktorea Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan.

MODERATZAILEA: María Mur Dean (Iruñea, 1977) Editorea. Soziologian eta Zientzia Politikoetan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Bilbao).



20:15

THE CROSSING

Bai Xue. Txina. 2018. 99 min.

Gidoia: Bai Xue, Lin Meiru

Aktoreak: Jiao Gang, Elena Kong, Liu Kai-Chi, Ni Hongjie, Carmen Tong, Sun Yang, Huang Yao

16 urteko neska bat kontrabandoan hasi da lanean, bere lagun aberatsari oporretan laguntzeko adina diru eskuratzeko asmoz. Hori egin bitartean, zenbait muga gaindituko ditu.



18:00

SEDER - MASOCHISM

Nina Paley. Estatu Batuak. 2018. 78 min.

Gidoia: Nina Paley

Irteeraren historia berriz kontatuko dute Moisesek, Aaronek, Heriotzaren Aingeruak, Jesusok eta zuzendariaren aitak berak. Historiak badu beste dimentsio bat, ordea: jainkosa batek, gizateriaren jatorrizko jainkosak, indar patriarkalen aurkako talka zuzena berpiztu du bertan.



19:30

MAHAI INGURUA: “EMAKUMEZKO EKOIZLEAK”

Nahikari Ipiña Sayaka Producciones ekoizteteko ekoizlea. 70 lan ekoiztu ditu, esaterako, *70 Binladens*, Koldo Serrarena; Nacho Vigalondoren lehen lau filmak; baita Borja Cobeagaren *Pagafantas*, *No controles* eta *Negociador* ere. Oscarretarako hautatutako bi film laburretan parte hartzen hasi zen, eta ordutik nazioarteko ibilbidea izan duten hainbat film laburretan hartu du parte.

María del Puy Alvarado Landa es ECAMen diplomatu zen, Ikus Entzunezko Ekoizpean, eta Madrilgo Complutense Unibertsitatean Informazio Zientzietan lizentziatu zen. Bere ikus entzunezko prestakuntza osatu zuen New Yorkeko Unibertsitatean eta Radio Televisión Española-ren institutu ofizialean. Malvalandaren ekoizlea. >>



>> MAHAI INGURUA: "EMAKUMEZKO EKOIZLEAK"

Marta Velasco Filologia Ingelesean lizentziatu zen, Hispalense Unibertsitatean. Ikasketak Hispalense Unibertsitatean eta Oxfordeko Unibertsitatean egin zituen. Zinemaren industrian 2002an sartu zen, ekoizle independente gisa hasi baitzen, Gonzalo Bendalarekin beren konpainia, Áralan Films 2004an sortu zuen arte. 2014ko maiatzean, European Film Promotionek (EFP) eta Zinemagintzako eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuak Espainiako ordezkari gisa hautatu zuten Producers on the Move plataformarako.

MODERATZAILEA: Virginia Yagüe ibilbide profesional luzea du telebistako sailean sortzaile eta gidoilari moduan. Zinema arloan, 2012ko Malagako jaialdiko Urrezko Biznaga irabazi zuen. Narratibari dagokionez eleberriri argitaratu ditu. Gaur egun, Virginia Yagüe CIMako (Zinemagintzako eta Ikus Entzunezko Bitartekoetako Emakumeen Elkarte) zuzendariordea da.



20:15

PAUSE

Tonia Mishali. Zipre. 2018. 96 min.

Gidoia: Tonia Mishali, Anna Fotiadou

Aktoreak: Stella Fyrogeni, Andreas Vasileiou, Popi Avraam, Marios Ioannou, Prokopis Agathokleous, Marina Mandri, Georgina Tatsi, Andrey Pilipenko, Oriana Mantzouranou, Louisa Michael.

Senar-emazte harreman zapaltzaile baten nahigabearen preso, adinertaineko emakume batek babesa topatu du mendekuzko indarkeriaren fantasiatzko mundu batean. Laster hasiko dira lausotzen errealitatea eta fantasia.



19:30

HITZALDIA: "FEMINISMOA, ALDAKETA ERAGILEA"

Maite Larrauri (Valentzia, 1950) Filosofia irakaslea izan da erdi mailako ikastetxe publikoetan, 36 urtez. Egun, erretiratuta dago. Militante antifrankista eta feminista izan zen joan den mendeko 70eko hamarkadan. Diferentziaren feminismo italiarra itzuli eta ekarri zuen.



20:15

MY FAVORITE FABRIC

Gaya Jiji. Frantzia. 2018. 96 min.

Gidoia: Gaya Jiji, Eiji Yamazaki

Aktoreak: Metin Akdülger, Manal Issa, Ula Tabari, Gaya Jiji, Wissam Fares, Mariah Tannoury, Souraya Baghdadi, Saad Lostan, Nathalie Issa, Rand Raslan, Amani Ibrahim, Hala Sayasne.

Damasko, 2011ko martxoa. Nahla gazte ezkongabe bat da, aspertuta bizi dena Siriako auzo batean, amarekin eta bi ahizparekin batera. Egun batean, Samir aurkeztu diote, Estatu Batuetako erbesteratu siriar bat, emazte bila dabilena. Nahlak bizitza hobe batekin egiten du amets. Ezer ez da, ordea, espero bezala gertatuko.



19:30

EZEZAGUNAK SAILA

ELVIRA LUZ CRUZ, PENA MÁXIMA

Ana Díez, Dana Rotberg. Mexiko. 1985 46 min.

Gidoia: Dana Rotberg, Ana Díez

Seme-alaben ongi frogatu gabeko hilketagatik biziarteko zigorra ezarri zioten emakume umilaren kasua. Gai horren ingurukoa da *Los motivos de Luz* fikziozko film luzea ere.

Aurkezpena eta eztabaida Ana Díez zuzendari eta gidoiariaren eskutik. Medikuntza lizentziatu zen, baita Zinema Zuzendaritza ere, Mexikoko CCCn. Egun Zinema Gidoioa eta Eszenaratzeko irakaslea da Carlos III. Unibertsitatean, eta Zinema Zuzendaritza ematen du ECAMen.



20:45

NOKA PROGRAMAKO EMAKUMEZKO ZUZENDARIEN EUSKAL FILM LABURREN PROIEKZIOA ETA NOKA PROGRAMAREN AURKEZPENA, ZUZENDARI HAUEKIN: ITZIAR LEEMANS, ESTIBALIZ URRESOLA ETA TAMARA LUCARINI



BAINERA

Itziar Leemans. Euskadi. 2018. 6 min.

Txalupa tiki bat ur nahasi beltzetan aintzintzen da emeki. Bidaian zehar gizon batek presondegi bizi izan dituen torturak gogoratzen ditu.



NOR NORI NOR

Estibaliz Urresola. Euskadi. 2018. 18 min.

Europako hizkuntza zaharrenetako bat bada euskara batua. Hainbat kulturatako bost preadoleszentek hizkuntza horretako deklinazioen bidez ezagutu, lagundu eta osatu dute elkar.



NO ES COMA

Tamara Lucarini. Euskadi. 2018. 15 min.

José Ramónek, istripu larri bat izan ondoren, Agustinen bisita izan du. Garai zaharrez solasteko baliatu dute parada.

“SIMONE DE BEAUVOIR” SARIA EMATEA

19:00

DE NUEVO OTRA VEZ

Romina Paula. Argentina. 2019. 84 min.

Gidoia: Romina Paula

Aktoreak: Romina Paula, Mónica Rank, Ramón Cohen, Esteban Bigliardi, Pablo Sigal, Mariana Chaud, Denise Groesman

Emakume bat bere hiru urteko umearekin eta mutil lagunarekin bizi da Córdoba mendilerroetan, baina amaren etxera itzuliko da, Buenos Airesera, bikotekidearen inguruan hausnartzera. Horretarako, ezkongabe bizitza berriz bizitzen saiatuko da: gauz irteten, ama izan aurretik nor zen jakiten saiatzen.



20:30

“SIMONE DE BEAUVOIR” SARIA PUY ORIA EKOIZTETXEARI EMATEKO EKITALDIA

Elkarrizketa Puy Oriari, Olga Pereda kazetariaren eskutik.

Puy Oria Nafarroako Unibertsitatean Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatu zen, 1986an. PIAFeko (Ikus Entzunezko Federatutako Ekoiztetxe Independentek) presidentea da 2018tik. Horrez gain, Nafarroako Kultura Kontseiluko, Madrilgo Erkidegoko Kultura Kontseiluko eta Espainiako Kultura Elkarteko batzorde aholku emaileko kidea da. Espainiako Zinema Akademiako kide ere bada. Produktzio zuzendaria eta Produktorea ere bada Oria Films-en.

Olga Pereda Kazetaritzan lizentziatu zen Madrilgo Complutense Unibertsitatean.



URRIAK 20, IGANDEA BILBOROCK

18:00 - 19:15

EMANALDIA: FILM LABURRAK FEMENINOAN



20:00

XPREST! AUX JAIALDIAREN VIII. EDIZIOA

URRIAK 21, ASTELEHENA AZKUNA ZENTROA

SARRERA LIBREA GONBIDAPENAREKIN (INFOPUNTUAN HARTU) JARLEKUAK BETE ARTE

19:15 h.

LA CAMARISTA

Lila Avilés. Mexiko. 102 min.

Gidoia: Lila Avilés, Juan Carlos Márquez

Aktoreak: Gabriela Cartol, Teresa Sánchez, Agustina Quinci, Alán Uribe

Eve zerbitzaria da, Mexiko Hiriko luxu handieneko hotel batean lan egiten duena. Lanaldi horren luze eta gogorren ondorioz, Evek ezin du semea zaindu lan egiten duen bitartean, baina garbi dauka egoera hobetuko zaiola lanpostu hobe batera iristean.



20:15 h.

MAHAI INGURUA: "LURRAREN GATZA: EMAKUMEAK BORROKAN"

Isabel Otxoa EHUKo irakaslea da, baita ELEko (Etxeko Langileen Elkartea) aktibista ere.

Itziar Gandarias Goikoetxea Psikologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Doktorea da Psikologia Sozialean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan.

MODERATZAILEA: Susana Carramiñana Soziologian eta Zientzia Politikoetan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Emakumeen eta Gizonen berdintasun Agentere masterra eskuratu zuen UNEDen.

